

AFRIKA

Birala bihurtu da sarkasmoz eta ironiaz betetako feministen kanpaina

 JENDARTEA / Maria Rodriguez (Efe)

Emakume beltza, benetako afrikarra zarela erakusteko minez erdituko zara». Gerra garrasi itxurako esaldi horretatik abiatu da Afrikako mendebaldeko herrialdeetan izugarri zabaldu den sarkasmoz betetako kanpaina feminista.

Boli Kostako telebistan erditzeari buruz eskaintako saio batek piztu zuen sua. Bertan emakume batek esaten zion beste bati benetako andre afrikarrak ezin zuela umea izan zesarea baten bitartez edo anestesia epidurala hartuta.

Hori entzun eta gero, Bintou Mariam Traore kazetari feminista haserretu egin zen eta horrela adierazi zuen Facebook sare sozialean otsailaren 26an. Berak orduan onartu zuenez, saio hark hausnarketak eragin zizkion. Bere burura etorri zitzaion feminista izateagatik ez dela benetako emakume afrikarra zenbat aldiz esan ote dioten eskubideen aurka dauden horiek.

Tankerako pentsamenduak beste askori ere etorri zitzaizkion burura, sare sozialetan izan ziren erreakzioak ikusita. Facebooken 5.000 jarraitzaile ditu Traorek eta bere mezuak berehala sortu zituen erantzunak. Batek baino gehiagok salatzen zuten egungo Afrikan «emakume ona» izatea zer kontsideratzen den. Pentsaera horri aurre egiteko sarkasmoa erabili zuten askok.

ARRAKASTA SAREAN

Sare sozialetan beren mezua erantsi nahi zuten erabiltzaileek *#vraiefemmeafricaine* etiketa («Benetako emakume afrikarra», frantsesez) erabili zuten. Egun bakar batean, birala bihurtuta zegoen eta han-

«Emakume beltza, benetako afrikarra zarela erakusteko minez erdituko zara». Gerra garrasi itxurako esaldi horretatik abiatu da Afrikako mendebaldeko herrialdeetan izugarri zabaldu den sarkasmoz betetako kanpaina feminista. Erditzeari buruz telebistak eskaintako saio batek piztu zuen sua.

dik aste batzuetara ez ziren oraindik erabat isildu oihartzunak Instagram eta Twitterren. Arrakastaren seinale!

Nabarmenezkoa da Afrikako leku gehienetan betiko ohi-
turek diotena betetzea izugarri garrantzitsua dela, neska batek zer izan behar duen eta nola portatu behar duen esango diotela tradizioek neskatilei, eta arau hori bortxatzera ausartzen direnak berehala salatzen dituzte. Oso zaila da feminista izatea. Eta aldi berean, inon baino beharrezkoagoa.

Sare sozialetan beren mezua erantsi nahi zuten erabiltzaileek «*#vraiefemmeafricaine*» etiketa («Benetako emakume afrikarra», frantsesez) erabili zuten.
GAUR8

«Afrikako benetako emakume batek gutxienez mutil bat sortu behar du, bestela etxeko apaingarri bat besterik ez da. Ni: 'A, bai! Apaingarri guztiak agurtu nahi ditut'», argitaratu zuen Facebooken bertan Meganne Lorraine Ceday Boli Kostako feministak.

«Postak argitaratzen ari zirela ikusi nuenean, neroni ere hasi egin nintzen, eta beste lagun batzuk, beste feministak. Hasiera batean jendeak ez zuen ulertzen zertan ari ginen. Sare sozialean azaldu behar

izan nien», kontatu dio Efe berri agentziari Isabelle Otchoumare Beningo feministak. Norbait haserretu egin zitzaion, bere kontua pirateatu egin zioten-eta.

Sare sozial berean erabiltzaile batek modu honetan laburtu zuen egoera: «Afrikako benetako emakumeak gauza guztiak jasan eta irribarreari eutsi egin behar dio».

«Zure ezkontzan sufritzen ez baduzu, benetako emakume afrikarra ez zarela esan nahi du», idatzi du Twitterren Salimata Traore Maliko ekintzaile feministak.

GIZONAK BELDURTU

Sareetan *#vraiefemmeafricaine* etiketarekin batera plazara-tutako argitalpen ezberdinetan ezkontzaren errealitatea salatzen da, langabeziarena, etxeko lanena, lan egiteagatik kobratzen duten kopuru urria-rena, berdintasunarena, prekaritatearena eta emakumeek jasan behar izaten duten beste indarkeriena, betiere sarkasmoa arma bezala erabilia.

«Afrikako benetako emakumea, zer egin, doktoretza lortu arte ikasten jarraitu ala irakasle bihurtu? Nor ezkonduko da zurekin? Gizonak beldurtu egingo dituzu», idatzi zuen Twitterren Sakina Walet Maliko ume eta emakume behartsuei laguntzeko elkarte bateko presidentea.

Isabelle Otchoumare benindarrak Efe agentziari telefonoz esan dionez, beraiek, ekintzaile eta feminista moduan, oso salaketa serioak egiten dituzte, baina herritarrek ez diete jaramonik egiten. «Beraz, pentsatu dugu ironia apur batekin lagunduta gure mezua hobeto iritsiko zaiola herritarrari. Eta berehala ikusi dugu umorearen eragina».





Edonola ere, ekintzaileak onartzen du herritar guztiak ez direla berdinak, «beren her-
tsikeria dela medio, batzuek ez
baitute ezer ikasi nahi». Hala
ere, «gure mezua salatzen ba-
dute, ukitu egin dituela esan
nahi du».

«Benetako afrikar emaku-
mea azkarra da eta, horrexega-
tik, beti feminismoaren aurka
egongo da, ulertu baitu femi-
nismoa zuriek antolatutako
konplota besterik ez dela,
emakume beltzaren eta gizon
beltzaren artean liskarrak era-
giteko sortutakoa», idatzi du,
ironiarekin, Halimatou Souc-
ko Maliko feministak.

Bintou Mariam Traorek be-
rak gogoan du nondik nora
sortu zen lehen ideia. Berak ez
zuen buruan kanpaina bat
abian jartzea, ezta pentsatu
ere! Martxoaren 8rako, hau da,
Emakumeen Nazioarteko Egu-
nerako hamabi egun baino fal-
ta ez zirela hasi zen, baina ez
kanpaina baten hasiera zelako,
kasualitatez baizik. Kazetaria
harrituta geratu zen bere etike-
tak izan zuen harrera ikusita.

«ALU USTEL»

«Gauzak zein gaizki dauden
salatzen duten emakumezko-
ak bazter guztietan aurkituko
dituzu, baina beti deabrua
izango balira tratatzen dituzte,
beraien aurka egiten du gizar-
teak. Zortzi urte daramatzat
sare sozialetan ekintzaile lana
egiten, betiere beste emakume
batzuekin batera. Burla egiten
digute, gure izena zikindu egi-
ten dute, iraintzen gaituzte:
'feminista frustratu', 'ez zara
inoiz ezkonduko', 'alu ustel' eta
antzekoak, badakizu», azaldu
du Traorek.

Sarkasmoaren eta ironiaren
bitartez egindako salaketek
arrakasta handia izan dute eta
sare sozialetan herrialde ez-

berdinetako emakume asko mobilizatu dituzte, batez ere frantsesez egiten duten lekue-
tan. Baina salaketa horiekin haserretu egin diren herritar-
rak ere badira, gizonaek gehienak. Traorek berak egin
duen irakurketaren arabera, «feministen kanpainak gizo-
nek gizaratean dituzten pribile-
gioak zalantzan jartzen ditue-
lako» izan dira era horretako
erreakzioak. «Gure mezua
ulertzen duten gizonak ere ba-
dira, beti izan dira emakume-
en alde borroka egin duten gi-
zonak, baina beti gutxiengo
bat izanda».

Beninen kanpainaren aurka
zeudenek, feminista belaunal-
di berri baten ekimena zela
esan zuten, eta bere helburu
bakarra familiak suntsitzea
dela. «Feministen inguruan
gauza asko irakurri dugu; se-
narrik gabeko emakume mo-
duan tratatzen gaituzte, sorgin
moduan. Tamalez, eztabaida
etxearen inguruan murgildu
da eta esan dute fenomeno
hau senarrik gabeko andreena
dela, etxe eta familia guztiak
suntsitu eta emakumeak di-
bortziatu daitezten animatzen
dituztela», dio Otchoumarek.

«Senarrak sastakaia sartu
eta lepoa mozteko mehatxua
egin dizu. Baina ez dibortzia-
tu. Barkatu eta otoitz egin gi-
zona alda dadin. Dibortziaz
gero, ez zara benetako emaku-
me afrikarra izango», idatzi
zuen Halimatou Souckok.

SENARRA SALATU?

Mezu gehienak egunero sufri-
tzen duten indarkeriaren in-
gurukoak dira. Nabarmentzen
dute Afrikan ez dela begi onez
ikusten «benetako emakume
afrikar» batek bere senarra sa-
latzea, nahiz eta bikotekideak
jipoitu edo bortxatu, otzana
izan behar du. Deborah Marie-



Feministen kanpainak Afrikako gizarateetan nagusi diren ideia
kontserbadore batzuk ditu jomugan eta goiko irudien tankerakoak
erabiltzen ditu. Aurreko orrialdean, Boli Kostako Abidjan hiriko bi
emakume erregaia etxera eramaten, maskara ahaztu gabe.

GAUR8 - Rissouf SANOGO | AFP

**«Afrikako benetako emakumea, zer egin,
doktoresetza lortu arte ikasten jarraitu ala
irakasle bihurtu? Nor ezkonduko da zurekin?
Gizonak beldurtu egingo dituzu»**

**«Zortzi urte daramatzat sarean ekintzaile lana
egiten, beste emakume batzuekin batera. Burla
egiten digute, iraintzen gaituzte: 'feminista
frustratu', 'alu ustel' eta antzekoak, badakizu»**

Estelle Boli Kostako feminis-
tak esaldi bakar batean labur-
tu du egoera: «Benetako ema-
kume afrikar bat izateko
irizpideak: ikasketa maila txi-
kia izatea edo eskolara inoiz
joan ez izana, gizon batek hitz
egiten duenean isilik egotea,
gizona barkatu eta zu izorratu
egurra eman edo bortxatuz
gero, bakarrik hezi behar ditu-
zu zure umeak. Zerrenda hau
ez da sakona. Afrikako beneta-
ko emakumeok, osa ezazue!». Zer gertatuko da etiketarekin?

Traorek berak ez daki emaku-
meek antolatze bidea hartu-
ko duten, mugimendu horre-
tatik zerbait aterako ote den... Ezta agintariekin gogoan hartu-
ko ote duten ere.

Otchoumareren ustez,
«emakumeak hitz egiteko
beldurrez dira, baina orain hi-
tza bera askatzen da, emaku-
meek sufritu duten guztia sa-
latzen dute eta, erronkak
egon badaude ere, salatze-
ko ausardiari eusten badiote,
txalotzekoa da».